

KANALAK:

- Instagram eta Twitter dira guk erabiliko ditugun sare sozialak, beraz, hauen bidez lortuko dugu gure zerbitzua merkatu segmentuetara iristea, gure balio proposamena helarazteko. Gure lagunei eta ezagunei eskatuko diegu beraien sare sozialetan gure aplikazioaren berri ematea, horrela, gure aplikazioa ahalik eta jende gehienari zabaltzea lortuko dugu guztiz doanik.
- Erabaki dugu Internet bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanal egokiena dela.
- Aplikazioa Play Store edo App storeren bitartez lortu edo deskargatu daiteke.
- Ahoz ahoko komunikazioa ere erabiliko dugu, lagunei, familiari, eta ezagunei kontatuz gure aplikazioaren sorrera eta horrela beraiek beraien lagun eta ezagunei zabalduko diete aplikazioa. Hala ere, gure aplikazioa ezagutarazteko bide egokiena sare sozialen bidez izango da, aurretik esan dugun bezala, gazteak baitira gure bezero nagusiak.

